



ZER DA KOMUNIKAZIOA?

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Ondorengo jarduerak taldea komunikabide tradizionalaz gain (telebista, irratia, zinea...) dauden bestelako kanalez kontzientziatzeko balioko du, eta nola ailegatu hauetara jakiteko, nola erabili, nondik jasotzen duten informazioa, eta abar.

AIM OF THE ACTIVITY

Ohikoez gain (telebista, irratia, zinea...), eskura dauden bestelako komunikabideak identifikatzea.

EXPECTED OUTCOMES

Kontzientziatzea dauden ohiko komunikabideez gain (telebista, irratia, zinea...) daudenetaz, eta nola ailegatu horietara eta erabili, nondik ateratzen duten darabilten informazioa.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Komunikabideei buruzko ezagutza zabala, aholkularitza gaitasuna, ariketa hau zabalik baitago eztabaidara.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Aparteko beharrianik gabe

LENGTH

60 minutu

MATERIALS

Paperezko arbela eta errotulagailuak, idazmateriala ikasleentzat (ezgaitasunak dituztenentzat edo ikusmen urritasuna dutenentzat ez)

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Hezitzaileak partehartzaileei eskatzen die identifikatzeko - • Zein komunikabide erabili zituzten ikasleek aurreko egunean? Zenbat denboraz? Nor da horren jabea? Nork har dezake parte? - • Erabilitako

komunikabidea edonorentzat eskuragarria al da? (helduagoak, haurrak, alfabetatze arazodunak, banda zabala, hizkuntza eta argota...) • Zer gertatzen da komunikabidea eskura ez daukatenean? Zein da komunikabide horren alde komunitarioekiko? Nork eta nola egiten du? (taldelana vs bakarkakoa ordenagailu/telefono/tabletarekin). Eskatu irudikatze nola egingo zuten. Zein mezu gustatuko litzaieke komunikatzea? Nola beteko zuten ordu hori? Zein itxura izango zuen, edo zein doinu? Ikasleek binaka eztabaida dezakete eta taldearekin elkarbanatu gero, edo, partehartzaile kopuruaren arabera, eztabaida irekia izan daiteke talde handian.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

10 (ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak dituztenentzat, 4 hezitzaileko)

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

Merezi du baita ere komunikabide komunitarioen definizio laburra emateak, nabarmenduz irratikomunitarioak komunitateko bolondresak egiten dituztela eta komunitateak daukala jabetza, etekinik gabeko oinarri batzuen baitan, bestelako bertako irratietxe komertzialetatik bereizten delarik.

PARTICIPANTS

Aparteko baldintzarik ez. Edozein talderekin erabili daiteke ariketa hau, eta ikuste-elementuak kenduz gero, baita ikusmen urritasuna daukaten partaideekin ere.

ANALYSIS AND EVALUATION

Partehartzaileek identifikatu al dituzte komunikabide guztiak, hala nola sozialak, iragarkiak eta bestelakoak ere? Jabetu al dira edukiek beraien mundu ikuskeran izan dezakeen eraginaz, eta zenbait komunikabide espezifiko hautatzeko izan dituzten arrazoiez?

SCHEDULING

Trebakuntzako lehenbiziko ariketatarikoa izan liteke hau, formatzaileari partehartzaileen mundu ikuskerari eta horien interesari buruz gehiago jakiteko aukera ematen baitio, aldi berean jabetuz erabiltzen dituzten komunikabideez eta interesgarri zaizkien edukiez.